



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza

**Osteguna
2010-01-28**

VIII. URTEA 1.914. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Kutturru atsedenekuko putzuak zortzi metro inguruko zabalera eta hamabi inguruko luzera ditu. I. GARCIA

BURRUNTZIENTZAKO PUTZU ARTIFIZIALA EGIN DUTE KUTTURRUN


IKAZTEGIETA Iñaki Mezquita Aranzadiko kideak bultzatuta gauzatu du proiektua Udalak, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzarekin 5

Guardia Zibilaren perituen azalpenak ez zaizkio nahikoak iruditu fiskalari

'EGUNKARIA AUZIA' Defentsaren lekukoek berretsi zuten 'Egunkaria'-k eta auzipetuek ez zutela harremanik ETArekin; defentsaren perituek itzulpenetan egindako akatsak agerian utzi zituzten atzoko saioan 3

Eskualdeko hainbat preso gose greban aurkitzen dira

POLITIKA Estatus politikoa aldarrikatzen dute; kalean hainbat elkartasun ekimen antolatu dira 4



Belabieta kiroldegia leporaino bete zuten pailazoek. NOELIA LATABURU

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots etorri dira Kultur Aстера

IBARRA Nerea Mendizabal psikopedagogoak Uzturpe Ikastolaren X. Kultur Astean hitzaldia emango du gaur, bi urte arteko haurrei buruz 6

Leitzaren ondoren Aresok hartuko du Inauterien lekukoa

GIZARTEA Bihartik igandera bitartean ospatuko dituzte; Eskolako Jaialdiak emango die hasiera 7

Gose, Ager, Etxe eta Laia taldeak entzuteko aukera, Bonberenean

Musika » Beraien azken lanak aurkeztuko dituzte; bihar eta etzi izango dira kontzertuak, ohi bezala 22:30etik aurrera.

ERREDAKZIOA

Urtarrilari agur esateko, musika zuzenean izango da Bonberenean. Asteburu honetan lau talde igoko dira eszenatokira gainera.

Asteburuari ongi ekiteko, bihar, Gose eta Anger talde arrasatearrak zuzenean ariko dira. 22:30ean hasiko da jaialdia.

Gose taldea hirukoa da: Ines Osinaga (ahotsa eta trikitixa), Iñaki Bengoa (sekuentziak, programazioa eta erritmoak) eta Osoron (gitarra eta baxua). Orain gutxi Gose taldea hirugarren lanera iritsi da. Gose taldea musika jateko, Euskal Herriko triki-pop musika eta tradizioa iraultzeko, musikari berrikuntzak ezartzeko eta bide berriak urratzeko sortu zen. Gose taldearentzat gosea plazera da, gero hori asetuko duen jakia ahoan badago.

Gose taldeak hiru oinarri nagusi ditu: hiru musikari, hiru zutabe. Taldea hainbat musika estilo eta jario desberdinen bilgunea da. Gose taldeari trikitixak eranstion dion substantibo eta izena *world-music* da. Gitarrek atxikitzen diotena rock eta punkaren ukitua da. Perkusio elektronikoa eta programazio musika elektronikoa eta



Gose taldeak bere hirugarren lana aurkeztuko du bihar gauean, 22:30etik aurrera, Bonberenean. HITZA

technoaren kutsua ezartzen diote. Gose taldea hiru zutabe-atal horietan oinarritzen da, baina entzulearen belarriak musika zipriritin ugari bustitzen dituzte, eta beti dantzarako giro aproposak eskainiz. Folk alorreko world-musika, rock isuri zalapartatsua punkaren tanteekin, techno klasiko eta trancearen zartada apartua.

Ohitura plazer bihurtuta. Gose taldeak hirugarren plazera plaza-ratu du. Diskoan galduta berriro beste ohitura bat. Disko guztietan errepikatu den abestia, sehaska abestiaren enegarren bertsioa bosanovaren ikuspegitik.

Lau urteigaro dira Anger taldearen azken lanetik eta oraingo honetan *Sedukzioaz* izeneko disko berriarekin datoz. Hamar kantuz

osaturiko iraupen luzeko bigarren lana, beste behin ere, Josema Linazasororen (Naiz Roxa, Gose) gidaritzapean grabatua, diseinuari dagokionez Unai Bergara arduratu delarik.

Sedukzioaz disko berriaren baitan, taldearen eragin musikal anitzak islatzen dira, metal nahiz hardcore doinuetatik haratago joanez. Hitzei dagokionez, aurreko lanetan bezala, gizartearen inguruko beraien irakurketa partikularra entzun edo irakurri dezakegu, oraingo honetan botere sozial nahiz politikoaren tresna den *Sedukzioari* buruz mintzo direlarik.

Etzi, bizkaitarren txanda

Etzi, bi talde bizkaitar zuzenean entzuteko aukera izango da, Be-

rriitik datorren Etxe eta Mutriko Laia. Ohikoa den bezala, 22:30ean hasiko dira kontzertuak.

Etxek bere azken diskoa, azoraren kaleratutakoa aurkeztuko du Bonberenean. Berrizko kantariaren disko berria rock eremuan dabil. *Heldu eskutik* bigarren diskoak abesti alaietatik hartzen du amasa, kementa eta malenkonia ukituaz. Etxe kantariak rocka eta popa sartu ditu osagai nagusi bezala bere diskoan, baina joera eta bidea rockera doaz. Etxe rockeroagoa bihurtu da. Kantuen sentimenduzko rockzale bihurtu dute. Musikaren bidea esparru rockeroa eraman du. Etxe kantariak kantuei erantsi dien pisua eta nortasuna rockaren bihotzean iltzatuta dago. Etxe kantariak bere taldearen be-

harra aldarrikatu du bere bigarren lan honetan. Taldeari bere izena jarri dio, nortasuna, ordea, taldeazalea da. Etxe hazi egin da. Etxe kantariaren bigarren diskoak *Heldu eskutik* rock garaikidearen trazak ditu.

Azaroan eman zuen argitara diskoa. Hamaika kantuk osatzen dute eta Baba-Biga diskoetxearekin kaleratu du. Anje Duhaldetik eta Roberto Mosok (Zarama) parte hartu dute bi kantutan. Bestalde, kantuetako bat Mikel Laboari eskainia da.

Laia taldea ere bere azken diskoa aurkezteko asmoz, Euskal Herriaren barrena bira egiten ari da, eta asteburu honetan, Tolosan egingo du geldialdia. Bizkaitik abiatu ondoren, Euskal Herriaren biran dabiltzala, Bonberenean geldialditxo bat egingo dute beraz. Laia taldeak bi mundu antagoinoak uztartu ditu disko berean eta oso musika melodiko eta erakargarria egitea lortu dute. Laia taldearen diskoa irekitzeko, eurek komposaturiko musika kutxa baten doinua aukeratu dute. Musika kutxaren doinua opari bat da; ezustea. Lotarako zein iratzartzeko balio dezake. Bi mundu desberdin horiek planteatzen dizkigu Laia taldeak. Metalaren esparruan goxo eta samur dabil. Doinu indartsuen parean utzi dizkigu ahots liluragarriak eta leunak. Batzuetan entzungo ditugu oiñuak eta latzak, baina faltseten melodia txundigarriekin nahasturik. Gaua eta eguna. Laia taldeak kantu bakoitzari bere ifrentzia bilatu dio. Bi mundu antagoinoak uztartu ditu disko berean eta oso musika melodiko eta erakargarria egitea lortu dute. Laia taldea metala eta rock melodikoan barneratu da eta eroso dabil.

Mahala Triatloi taldekoek neguko triatloi txapelketei ekin diete jada

Kirola » Joan den asteburuan Espainiako jokatu zen eta oraingo honetan berriz, Reinosako proban parte hartuko dute.

ERREDAKZIOA

Pasa den igandean jokatu zen Anson, Espainiako neguko triatloi txapelketa. Lasterketan 7 kilometro korrika, 20 bizikletaz eta 8 eskiatuz egin behar izan zituzten.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Katea.** Amezketako Zazpi-Ilturri inguruan urrezko katea bilatu da. J. Z. inzialekin. Harremanetarako deitu 678 47 66 12ra.



Mahala Triatloi taldekoek ekin diote denboraldi berriari. HITZA

Urteko lehen lasterketa izanik, euren sasoi puntua nolakoa zen ikusteko balio izan zien eskualdeko triatloiariei, taldearen helburu nagusiak udako triatloiak baitira. Aipatu gainera, Igor Aranburuk, bere lehen parte-hartzean 18. postuan sailkatzea lortu zuela, Espainiako onenekin lehia polita izan ondoren. Taldekakoan 10. sailkatu ziren.

Asteburu honetan ere beste hi-

tzordu bat izango du neguko triatloiak. Oraingoan Reinosan, Bertan XXXIII. ekitaldia burutuko da distantzia hauekin: 9 kilometro korrika eta 24 bizikletaz. Alto Campo igo beharko dute eta 10 kilometro eskiz zeharkatu. Aipatutako proba hau, estatu mailan aitzindari da formatu berezi honetan. Bertan Mahalako triatloi taldeko sei partaidek baieztatu dute parte-hartzea.

TAK-eko zortzi ontzi lehian ari dira Gipuzkoako Ligan

Arrauna » Joan den asteburuan lehendabiziko jardunaldia jokatu zen Orion; bigarren geratu ziren infantil-kadete neskek.

ERREDAKZIOA

Hasi da jada Batelen Liga. Joan den asteburuan Orioko uretan, Zarauzko arraun taldeak antolatuta, Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldia jokatu zen. Euripean, 70 batel baino gehiagok hartu zuten parte.

Tolosaldeko Arraun Klubak zortzi ontzirekin hartu zuen parte. Hauen artean, emaitza onena lortu zuena, infantil-kadete mailako neskena izan zen, bigarren geratu baitziren. Honek Orio izango du txapelketa honetan aurkari nagu-

sia. Gorengo mailakoek lehendabiziko postuak lortzeko borrokatu zuten Kooxtape eta Zumaiaokoekin batera. Denak ere 10 segundoko tartean aurkitzen baitira. Mutiletan, jubenilak bosgarren eta zazpigarren sailkatu ziren.

Eskualdeko gainontzeko batelekin nabari zitzairen uretan egin beharreko entrenamendu falta. Bestalde, aipatzekoa da, arraunlari hasiberriak ere badaudela TAK-en.

Ugaitz Mendizabal patroi Astilleroan

Astillero arraun taldeko banku mugikorrek zortziko olimpikoko patroia da Ugaitz Mendizabal tolosarra. Hauek Puy-n (Galizia) jokatutako distantzia luzeko txapelketan irabazle izan dira. Mendizabalek Tolosaldeko Arraun Klubean egin zituen hastapenak.

Fiskalari ez zaizkio nahikoak iruditu Guardia Zibilaren perituek emandako azalpenak

'Egunkaria auzia' »

Defentsaren perituek itzulpenetan egindako akatsak agerian utzi zituzten atzoko saioan.

ERREDAKZIOA

Egunkaria auzia-ren bosgarren saioa izan zen atzo, Madrilen, Espainiako Auzitegi Nazionalan. Lehendabizi defentsaren lekukoek deklaratu zuten, eta guztiek *Egunkaria*-k eta bost auzipetuek ez zutela ETArekin harremanik ziurtatu zuten. Bestalde, defentsaren perituek auzipetuei atzemandako agirien itzulpenetan akats ugari daudela adierazi zuten. Guardia Zibilaren perituen deklarazioen ostean, berriz, fiskalak esan zuten euren azalpenak ez zaizkiola nahikoak iruditzen.

Goizean, Nerea Azurmendi *El Diario Vasco*-ko kazetari eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea izan zen deklaratzeko lehena defentsaren lekuko gisa. Azurmendik ziurtatu zuen ETAk eta KASEk ez zutela inolako esku-hartzerik izan *Egunkaria*-n, eta berak bizi izandakoan oinarrituta ziurta dezaakeela hori.

«Orain S.A.k eta 'Egunkaria'-k harreman komertziala zuten»

Sebastian Barinagarrementeria *Egin* argitaratzen zuen Orain S.A.ko kudeatzaile ohia izan zen hurrena. Orain S.A.k *Egunkaria*-rekin harreman «erabat komertziala» izan zuela esan zuen eta, euren errotatibean ez ezik, zenbait produktu *El Diario Vasco*-n botatzen zituztela. Egunkaria Sortzen indartzean Orain S.A.k euskara hutsezko egunkaria plazaratzeko zuten proiektu propioa baztertu zutela ere esan zuen. Ildo beretsukoak izan ziren Simeon Barrosoko Apika informatika enpresako buariaren eta Ander Larrañaga Antza inprimategiaren deklarazioak.

Auzipetuekin izandako harremana aztergai

Ondoren Jonan Fernandezek eta Iñaki Zubeldiak deklaratu zuten. Auzipetuekin zuten harremanaren ingurukoak izan zen beraien lekukotza. Esaterako, Fernandezek agertu zuen Oleaga Elkarki-ko bazkidea eta Auzmendi bazkide laguntzailea zirela. Halaber, agertu zuen 80ko hamarkadan Tolosako Udalerako HBko zerrendakide independenteak izan zirela Otamendi eta biak, baina ziurtatu zuten berak bezala Otamendik ez zuela indar politikorik in harreman organikorik.



'Egunkaria'-ren alde elkarretaratzera egin zuten igandean Larraulen. HITZA

'Egunkaria'-ren oinarriez

Imanol Igeregi Ikastolako kooperatibako buruak ere deklaratu zuen atzoko saioan, eta, besteak beste, adierazi zuen Xabier Oleagak indarkeriaren kontrako jarra duela eta honek proposatu zuela ETAk Bixente Lizarazu futbol jokalaritari egindako mehatxuen hariragaitzespen oharra plazaratzea.

Jakin taldeko Joxe Azurmendi pentsalari eta idazlea eta Joseba Intxausti historialari eta idazlea aritu ziren ondoren. Bata zein beste *Egunkaria* Sortzenen aritu zirela agertu zuten, eta Martin Ugaldek eta Karlos Santamariak proiektu hartan izandako inplikazioa azpimarratu.

'Egunkaria'-k eta auzipetuek ETArekin ez zutela harremanik berretsi zuten lekukoek

zioa azpimarratu. Azurmendik, adibidez, agertu zuen *Egunkaria*-ren 11 oinarriaren muina Santamariak askoz ere lehenago *Jakin* aldizkarian argitaratutakoetan zegoela. Torrealdairen lagun gisa ere hitz egin zuten biek. Azurmendik agertu zuen espetxetik irten zenean torturatu egin zutela aitortu ziola Torrealdaik, negar artean, hiru orduko hizketaldi luzean.

Intxaustiren lekukotzarekin amaitu ziren defentsak eskatutako lekukoaren deklarazioak. Astelehenean mintzatu ziren gainerakoak: Iñaki Zabaleta *Egunkaria* Sortzen taldeko partaidea, Imanol Murua Uriakazetako langile ohi eta *Egunkaria* Sortzeneko kidea, Jose Luis Zinkunegi jesuiten burua, eta Fernando Berridi *El Diario Vasco*-ko kudeatzaile ohia.

Itzulpenetan, «hainbat pasarte zentzua aldatuta»

Lekukoaren ondoren, defentsaren perituek hasi ziren. Kaligrafiako perituen agerraldia tramite hutsa izan zen. Itzulpen arlokoekin, aldez, gorabehera gehiago izan ziren. Lehenik eta behin Auzitegi Nazionalan guardia zibilaren itzulpenen egokitasuna berretsi zuten itzulzaileekin nahasmena izan zen, eta balioztatu gabe geratu zen Auzite-

gi Nazionalako itzulzaileek *Egunkaria auzia*-z egindako txostena.

Nahasmen horren ondoren, Bego Montorio itzulzailea, defentsaren peritua, hasi zen deklaratzeko. Itzulpenetan hainbat akats atzeman dituztela agertu zuten. Esaterako, «ene ueste apalean», «en nuestra opinion en la estanteria» gisa itzulita; «elkarrizketa» «negociacion» gisa, «banaketa» «votacion» eta horrela. Montoriok esan zuen hainbat pasarte zentzua aldatuta daudela, eta batzuetan jatorritzaioetan ez dauden ideiak sartzeke gogoia ere sumatu dutela.

Guardia zibilaren ustez, kazetak ez zuten akziodunik

Arratsaldeko saioan Guardia Zibilaren perituek deklaratu zuten. Kazetak ez zuela akziodunik esan zuten, datu base faltua zeukala. *Egunkaria*-k, baina, urtero egin zituen akziodunen batzarrak, azkena, 2002ko ekainaren 15ean. Bestalde, *Egunkaria*-ren sorreran herriarren artean egindako diru bilketa ETArekin lotu zuten, «hori egitea ohikoa delako ETA eta KAS inguruan». Guardia zibilaren arabera, ETAk erabaki zuen Martxelotamendi zuzendari izendatzea, eta Oleaga zuzendariorde jartzea, eta euren ustetan erakunde armatuak *Egunkaria*-ko berri Xabier Alegriaren bidez izaten zuten.

Miguel Angel Carballo fiskalak hainbat galdera egin zituzten guardia zibilaren perituei, eta horiek luze erantzun zuten arren, fiskalak azaldu zuten ez zitzaizkiola nahikoak iruditu azalpenak.

Epaiaketaren jarraipena

Epaimahaiak jakinarazi zuenez otsailaren 1ean, 2an eta 3an jarraituko du auziak, hain zuzen ere, 3an amaitzeko. Epaiaren zain geratuko dira orduan bost auzipetuek.

Egunkaria Eguna

Hainbat ekimen ari dira antolatzen *Egunkaria*-ren alde, eta horietako bat da otsailaren 20rako iragarri duten *Egunkaria* Eguna. Egun hori antolatuta eta lana banatzeko, bilera egingo dute gaur, Tolosako Lizardi elkartean, 20:00etan hasita.

Laburrak

Barreterapia ikastaroa antolatuta dute etzira

TOLOSA • Tolosako Barrearen Eskolan *Maitasuna eta umorea eguneroko bizitzan* ikastaroa antolatuta dute etzira. 10:00etatik 14:00etara izango da, eta izena emateko 943 11 86 69 edo 688 80 08 00 zenbakietara hots egin edo rsainteligente@hotmail.com helbidera idatzi ahalko da.

Aitzol Euskaltegiaren matrikula egiteko aukera

TOLOSA • Aitzol Udala Euskaltegiaren matrikula egiteko aukera egongo da otsailaren 1etik 9ra, goizez 09:00etatik 13:00etara, eta arratsaldez, 15:00etatik 19:00etara. Informazio gehiagorako 943 65 10 06 edota 943 65 23 43 telefono zenbakietara hots egin daiteke.

Samaniego ikastetxea ezagutzeko, bisita egunak

TOLOSA • Datorren ikasturterako matrikula ireki dute Samaniegon. Hurrengo astean, hilaren 2an eta 4ean, 16:45ean bisita egunak egingo dituzte Haur Hezkuntzako eraikinean. 943 65 10 63 zenbakian edo 12244aa@hezkuntza.net jar daiteke harremanetan.

Antonio Zabala omenduko du gaur, Euskaltzaindiak

TOLOSA • Euskaltzaindiak ageriko bilkura egingo du gaur Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, azken urtean hil diren euskaltzainak omentzeko. 16:30ean izango da ekitaldia, eta bertan, besteak beste Antonio Zabala tolosarra omenduko dute. Ekitaldian, Joxemari Iriondok Antonio Zabala euskaltzainaren inguruan eginiko txostena irakurriko dute. Tolosarrarekin batera Santiago Ezkerra, Yuri Zytars, Roger Irdiart, Mikel Atxaga eta Juan Jose Zearreta euskaltzainak ere omenduko dituzte.

Oscar Renedo idazkari nagusi izendatu dute

TOLOSA • Oscar Renedo Tolosako idazkari nagusi izendatu dute egin berri duten ezohiko batzarrean. Tolosako PSE-EEK aho batez erabaki du Renedok kargu horretan jarraitzea. Renedok bere aldetik alderdikoek erakutsi dioten «konfiantza» eskertu du, eta «Tolosaren alde arduraz lanean jarraitzeko konpromisoa» azaldu du. Krisiaren eragina jasaten ari direnei babesa azaldu die eta bere alderdia lanpostuak sortzeko ahalegina egiten ari dela adierazi du.



Aurrez prestaturiko jakien ingelezia

EKONOMIA • Eskualdeko lantegi berri baten aurkezpena egin zuten atzo Tolosako Kasinoan. Lanbroa du izena, Anoetako industrialdean kokaturik dago eta aurrez prestaturiko jakiak eginen dituzte. Aurkezpen ekitaldian jakiak dastatzeko aukera izan zen. Bertan izan ziren eskualdeko ostalaritzako hainbat ordezkareri.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Euskal presoek borrokoldiarekin jarraitzen dute, orain gose greban

Politika » Gose greban dauden euskal presoek babesa adierazteko ekintza ezberdinak daude, baita azken ostiralak ere.

ERREDAKZIOA

2010. urtea Euskal presoek borrokan hasi dute eta aste honetan eskualdeko presoak, besteak beste, gose greban daude. Gose grebari hilaren 25ean ekin zioten Frantziako eta Espainiako espetxeetan dauden Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kideek. Gose grebaren ekintzarekin, «dagokigun estatut politikoen aldarrikapena eta errekonozimenduari indar berezia eman nahi diogu» aldarrikatu dute.

Bertan daude eskualdekoak ditugun presoak eta hauen senide eta lagunak ere ez daude geldirik egoteko. Aste honetan testu bat argitaratu du Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimendua. «Presoen ahalgintza txalotu eta goraipatzea da barruak eskatzen diguna. Jakina da, azken urteetan muturreko egoerak areagotu direla presoen kolektiboarentzat» esanez hasten dute testua eta «testuinguru gordinean bizi dira preso politi-



Asteartean, Villabonako herritarrek Euskal Presoiei babesa adierazteko elkarretaratzea egin zuten. E. MAIZ

koak, bizi baldintza duinetatik oso urrun. Gatazkaren parte eta ondorio dira. Izaera politikoa duen kolektiboa osatzen dute eta hori, presoek bezala guk ere aldarrikatu egiten dugu» gaineratzen dute.

Villabonako senide eta lagunak garbi dute «Euskal Herrian aurkitzen dela presoen eskubideak bermatu ahal izateko bermea eta Euskal Herriko sektore politiko, sozial, sindikal eta norbanakoaren bultzada eta konpromisoa beharrezkoak izango dira euskal preso politikoen eskubideen bermea eman dadin».

Bestalde, Julen Zelarainen kasua bereziki azpimarratu nahi izan

dute: «Larria da. Bi hilabete darimatzat bisitarik eta bisean bisekorik jaso gabe. Kanpoko inorekin komunikatzeko aukera izanezink dago». Huelvako espetxean dago eta bisitarako ere, miaketen araudia aplikatzen hasita daude.

Aimar Altuna Lizartzako presoak, pasa den larunbatean bete zuen Frantziar estatuan ezarri zioten zigorra. Edozein unetan Espainiara eramango dute estradizio bidez.

Ekimen ezberdinak Ibarren

Aste osoan zehar herriko kaleetan propaganda ipintzen ibili dira. Azken ostirala izanik, mobilizazioa egongo da, baina ohikoa den beza-

la kontzentrazioa egin ordez manifestaziorako deia luzatu dute. Ibarako plazatik abiatuko da 19:30ean.

Behin manifestazioa amaituta, herritar talde bat (20 inguru) udallexean sartuko da eta asteburu osoko baraualdia egingo dute. Propaganda banatu, presoek gutunak idatzi eta aurrera begirako dinamikak zehazteko ere baliatuko dute baraualdia.

«Presoak dena ematen ari diren honetan, kalean gaudenok zerbait ematera behartuta gaudela» uste dute ibarretarrek eta «modu batera edo bestera» elkartasuna adieraztera deitu dute.

» AZKEN OSTIRALETAKO ELKARRETARATZEA

- Aduna. 20:00etan.
- Alegia. 19:30ean.
- Amezketeta. 19:30ean.
- Anoeta. 19:30ean.
- Asteasu. 20:00etan.
- Ibarra. 19:30ean.
- Ikaztegeta. 20:30ean.
- Leitza. 20:00etan.
- Lizartzeta. 20:00etan.
- Orendain. 20:00etan.
- Tolosa. 19:30ean.
- Villabona. 20:00etan.
- Zizurkil. 20:00etan.

Atzertirik ere presoek babesa

Georges Ibrahim Abdallah euskal presoek elkartasuna adierazteko gose greban dago. Lannemezaneko espetxean dagoen militante iraultzaile arabiarra, bat egin du euskal presoen borrokarekin eta baita Lorentxa Gimonen gose grebarekin ere. Hau ere ostirala arte gose greban dago. Abdallah Palestinaren aldeko borrokan aritu ondoren Frantziara hartu zuten preso orain dela 26 urte. Oraindik preso jarraitzen du.

Elkarretaratzeak herrietan

Hileko azken ostiral guztietan bezala, 2010. urtea ere ildo beretik hasiko du Amnistiaren Aldeko Mugimendua, hau da, herrietan elkarretaratzeak eginez. «Presoen, eta hauen senide eta lagunenez geroa zein den ikusita inoiz baino garrantzitsuagoa izango da» bertan parte hartzea.



harpidedun izateak badu saria

① Afaria

Tolosako ISASTEGI
sagardotegian
2 pertsonentzako
afaria



Aldaba txiki, 15 A
943 652 964
TOLOSA

② Antzerkirako sarrerak

XABINEITOR

antzezlenerako 2 sarrera pare

Ostailak 5 ostirala
20:30ean • Tolosako Leidor-en



③ Diskoa

Elkar etxeak eskeinia
Xabier San Sebastian-en
"Ospela" azken diskoaren 4 ale



④ Liburua

Elkar etxeak eskeinia
Rai Bueno era Iratz Inziartek
egindako "Fatima"
haur liburuaren 4 ale



Bioaniztasuna bultzatzeko ur putzua egin dute Kutturrun

Ikaztegieta » Lanak aurreko astean amaitu dituzte atsedenekuan eta, besteak beste, burruntzia erakartzeko egin dute.

IMANOL GARCIA

Ikaztegieta Kutturrun atsedenekuan ur putzu artifiziala egin dute bioaniztasunari bultzada emateko asmoz. Udalak eraman du aurrera proiektua diru laguntzak lortu eta gero. Kostua 6.034 eurokoa izan da eta Eusko Jaurilaritzak ordainduko du bere osotasunean. Burruntzia edo sorgin-orratzak izango dira putzuko ikurrak, baina beste hainbat espezie ere erakarriko ditu: urlehortarrak (zapoak eta igelak), elbiak, trikoptera eta efemerak (burruntzien janaria) eta basoko animaliak. Iñaki Mezquita Aranzadiko kide alegiarrak proposatutako ekimena izan da.

Horrelako beste putzu bat dago eskualdean. Alegian putzu naturala zegoen aurretik eta obra batzuegatik desegin egin zen. «Horregatik planteatu nion Alegiako Udalarri putzu artifizial bat egitea», azaldu du Mezquitak, «eta pentsatu nuen beste udalerrietan ere egitea bazegoela». Hortik abiatuta, Agenda 21eko Garbiñe Olaberria teknikariarekin harremanetan jarri eta Ikaztegieta putzua egiteko aukera gauzatzen hasi zen.



Putzu artifiziala Kutturrun atsedenekuan bertan dago. I. GARCIA

Aurreko ostiralean amaitu zizuten putzuaren eraikitze lanak. Atsedenekuaren alde batean dago. Zortzi metro inguru ditu zabalera eta hamabi inguru luzera. Zorua maldan zegoenez, kerdutako lurra aprobetxatu dute malda handiagoa zuen zatia orekatzeko. Zuloa egin eta gero, zoruaren plastikoa jarri da. Mezquitak jakinarazi duenez, «iraunkortasun bat eman nahi izan diogu. Plastikoa ez bada jartzen, lurra ura xurgatu dezake eta putzua lehortu». Plastikoa gainera organikoz egindako sarea jarri dute, lehenbailehen naturalizatu dadin. Gero belarra eta beste landare batzuk erein dira ekosistema osatzeko.



Burruntziak dira putzuaren ikurrak. I. GARCIA

Sakonerak ere garrantzia du. «Ekiak berria dagoen zatian sakonera gutxiago eman zaio eta arratsaldean eguzki gehiago jasoko duen zatian sakonera gehiago. Espezieak sakoneraren arabera ibiltzen dira», azaltzen du Mezquitak. «Ea lortzen dugun kolonizazio polit bat sortzea sakonera ezberdinak emanez».

Putzuak inguruan hesia du. «Gehienbat pertsonengatik eta pertsonak ekartzen dituzten animalengatik» jarri da hesia, Mezquitak dioenez. «Zakurrak horrelako putzu bat ikusten duenean, barruan sartzea da egiten duen lehen gauza». Gainera, haur koskorrentzako eta zakurarentzako ere arriskutsua izan daiteke. Bestetik, putzua babesteko ere balio du hesiak.

Beste esku-hartzeak

Beste zenbait udalerritan ere proiektuak gauzatzen saiatu da Mezquitak. «Villabonan izan ginen putzu bat egiteko lekua ikusten, baina Udalean izandako desadostasunen ondoren ez da aurrera ateratu», dio Aranzadiko kideak.

Tolosan hainbat esku-hartze aurreikusita daude, baina ez dirudi aurrera aterako direnik oraingoz. San Blaseko ur bildua atondo, Uzturreko bi iturri berreskuratu, Elosegi parkeko igerilekua putzu bihurtu eta, garrantzitsuenak, San Blaseko zabortegearen gainean ur-maela egitea. Tolosako Udalarri onartu zaio %80ko diru laguntza baina oraindik ez du ezer egin.

Mezquitak azaltzen duenez, Alegiako eta Ikaztegieta putzuak «putzu txikiak dira. Tolosako ur-maela martxan jartzea da asmoa eta hori lortzen bada, ikur bezala hartu eta saiatuko gara Goierrin ere horrelako zerbaitez bultzatzen».

«Hezeguneetan egindako kalteak nolabait konpentsatzeko balio dute horrelako putzuek»

IÑAKI MEZQUITA » Aranzadi Zientzia Elkarteak kidea

I. GARCIA

Iñaki Mezquitak burruntzien gaia ematen du Aranzadi Zientzia Elkartearen. Laster Gipuzkoako burruntziei buruzko liburua argitaratuko du Foru Aldundiarekin. **Ikaztegieta Kutturrun egin den ur putzua bezalakoak beharrezkoak dira?**

Lehenengo gauza: ez dugu pentsatu behar munduko okerrenak garelako. Bai Alemanian bai Frantzia hezeguneen %60a desagertu egin dira. Gipuzkoa berez oso leku urtsua da, baina hezegune asko desagertu, manipulatu edo eraldatu egin dira. Zerbaitez egin beharra dago beraz fauna honek jarraipen pixka bat izan dezan, hau da, leku hauek komunikazioa izan dezaten beraien artean, animalien populazioak ez ahultzeko. Populazio horiek arriskuan sartu eta kaltebera



I. GARCIA

bihurtzen dira euren artean isolatuta daudenean. Eta hori da Gipuzkoan gertatu dena. Errepide asko daude eta zenbait animalientzat oztopo gaindiezinak dira. Burruntzientzat ere arriskutsuak

dira, ibaiekin nahasten dituztelako. Errepidean patruilatzen jartzen dira eta autoek harrapatu egin dituzte. Hori nolabait konpentsatu behar da. Esku-hartze hauek artifizialak dira, baina bestetik

egindako kalteei nolabait konpentsazio bat emateko balio dute.

Burruntziak azaldu da putzuan?

Neguan ez da burruntzirik izaten. Hil egiten dira. Espezie bakarra dago negua igarotzen duena intsektu hegalar bezala. Orokorrean arrautzak jartzen dituzte eta gero larbak garatzen joaten dira. Putzu hau egitekoan espezie bat bazebilen, baina bere larbak garatzeko urtebete behar da. Beraz, udaberriari auzalduz direnak ez dira larba horietatik aterako, beste batzuk izango dira.

Zenbat burruntzia mota azalduko direla uste duzu?

Itxaropen zabalena edo pozgarriena 18 inguru ikustea izango zen. Alegian zegoen putzuan, denegun aurretik, 29 espezie zeuden. Kopuru handia da kontuan hartuta Gipuzkoan osoan 40 daudela.

Kontua da zer jarraipen egingo zaion eta horren arabera ere jakin da zenbat dauden. Maiztasun batekin 18 espezie azaltzen badira Ikaztegieta, zoragarria izango litzateke.

Jarraipena egitea pentsatzen duzue Aranzaditik?

Tamalez Aranzadin burruntzien aritzen naizen bakarra naiz. Beste animalia batzuekin, kakalardoak, tximeletak, uliak, erleak... jende gehiago ari da. Beraz, ni etorriko naiz jarraipena egitera.

Alegian, Langaurren, beste putzu bat dago. Bertara ere joaten zara?

Langaurra sarritan igotzen naiz. Hark izan du kolonizazio bat eta espero zitekeen espezieak agertu dira.

Ibiurko urtegiak urmael bezala ere funtzionatu dezake?

Funtzionatu dezake, baina normalean horrelako urtegi handietan, horma inguruak ez dira aberatsak izaten, sakonera handikoak direlako. Aberatsagoak dira urtegiaren buztanak esaten diegunen, hau da, urtegi hasten den puntu horiek. Urtegiak errekak gelditzen dituen leku horiek habitatu oso aproposak dira animalientzat.

Bide onetik doa Uzturperen X. Kultur Astea

Ibarra » Atzo Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoak izan ziren protagonista nagusiak; jendetza bildu zen Belabietan kiroldegian.

ERREDAKZIOA

Hollywood-eko izarrak bailiran agurtu zituzten Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoak Belabietan kiroldegian bildu ziren ehunka gaztetxoak. *Irrien lagunak* ikuski-zun berria aurkeztu zuten, Uzturpe Ikastolaren X. Kultur Astearen harira antolaturiko ekitaldian. Pirritxek ezin izan zuen Ibarren egon atzokoan, baina hitzordura ez zuen faltatu, bideo konferentzia bidez jarri baitziren harremanetan berarekin.

Haurrak eta gurasoak gustura igaro zuten arratsaldean; emanal-

dian parte hartu zuten eta gogotik egin zuten barre pailazoan erokeriekin.

Oraindik ere geratzen direnak Urterobezala, aurten ere bide onetik doa Kultur Astea. Oraingo egin dituzten ekitaldiek erantzun ona jaso dute eta pozik daude ikastolako arduradunak.

Antolatzaileek jakinarazi duteenez etziraiko aurreikusita zegoen graffiti jaialdia bertan behera utzi dute, euria dela-eta margoekin arazoak izan direlako. Baina aurretik ekitaldi ugari geratzen dira



Pailazoek ikusmin handia piztu zuten Ibarako Belabietan. N. LATABURU

oraindik. Gaurko hitzaldiari bihar, *Urtu baino lehen* proiektzioak jarraituko dio. DBHko ikasleentzat zuzendutako dago eta bertan Ikas-

Larunbateko graffiti jaialdia atzeratu egin dute, euria zela-eta arazoak izan dituztelako

tolako ikasle ohien lana izango da ikusgai. Hain zuzen, lan honekin Dina Bilbao Bidaia Beka irabazi zuten.

» X. KULTUR ASTEA

■ Urtarrilaren 28a, gaur.

Zergertatzen da 2 urterekin hitzaldia 18:00etan, Nerea Mendizabalen eskutik. 0-2 urte bitarteko seme-alaben gurasoentzat.

■ Urtarrilaren 29a, bihar.

Urtu baino lehen proiektzioa DBHko ikasleentzat ikastolako ikasle ohien lana, Dina Bilbao Bidaia Bekaren irabazle.

■ Urtarrilaren 31, igandea.

Mendi ibilaldia Ibiurko urtegia, 09:00etan abiatuta Kultur Etxetik.

«Bere emozioen atzetik umeak beti zerbait adierazi nahi digu»

NEREA MENDIZABAL » Psikopedagogoia

N. LATABURU

Gaur *Zergertatzen da 2 urterekin* hitzaldia eskainiko du Nerea Mendizabalek (Zestoa, 1976) Uzturpe Ikastolaren X. Kultur Astearen baitan. Adin honetan haurren ematen diren aldaketak eta «dependenziaren eta independenziaren artean dute» borrokaren inguruan jardungo du psikopedagogo honek, besteak beste.

Zer transmititu nahi diezu gurasoei zure hitzaldian?

Batetik, adin honetan haurren ematen diren aldaketak eta emozioak landu nahi ditut. Esaterako, 2 urterekin dependenziaren eta independenziaren arteko borrokan daude. Batetik «nik bakarrik» diote, baina gurasoen dependentzia handia dute. Gai hauen in-

guru haurrari nola lagundu landuko dut, umearen autoafirmazio hori garrantzitsua delako. Bukatzeko, umeen emozioekin nola lagundu ere landuko dut. Adin horretan bete-betean daude amonarekin, agresibitatearekin, kasketekin... Guk zer ulermen punturekin jaso ditzakegu umeen emozio hauek landuko dugu.

Zeintzuk dira umea bere emozioekin laguntzeko jarraibideak?

Lehenik eta behin, ulertzea emozio horien atzetik beti zerbait dagoela eta zerbait adierazi nahi digula, berarentzat pisutsua dena. Eta ondoren, emozio hori kanalizatzen laguntzea, batez ere, amonarekin, agresibitate... denean. Askotan emozioak eustera jotzen dugu eta hau ez da osasuntsua.

Adibide bat jariezadazu...

Adibidez, umeari gauzak botatzeko joera ematen badio, ez diogu hori ukatu behar, beste eta bere buruari min ematen ez dieten gauzak emango dizkiogu bota ditzan, kuxinak, pilotabigunak... Ez diogu bere emozio hori erreprimiutuko. Hau da, ez dadila tabu bat izan.

Gurasoen aldetik, zein izaten da bere kezka nagusia?

Alde batetik, kasketak zein txantajeak eta bestetik, umeari neurria hartu nahia. Askotan, «Bale, bale, ulertu behar zaio, baina orduan nizer?» esaten didate. Helduari gatazka sortzen zaio bere arauetan sartuta dagoelako eta haurra beste errealitate batean dagoelako. Bi mundu horiek uztartzea kostatzen zaie helduei. Heziketak den-

bora eskatzen du eta askotan ez diogu lehentasuna ematen. Gatazka hauetatik sortutako egoerak dira zailak gurasoentzat.

Txantajea aipatu duzu. Nola landu duzu hori?

Helduek ere erabiltzen ditugu txantajeak. Guk helduok zergatik erabiltzen ditugun txantajeak ikusten lagunduarazi nien. Bada umeek ere berdina egingo dute, arrazoi eta behar batzuk bete nahi dituzte txantajearekin. Kontzientzia hartzea da puntua, txantajea erabili ordez zer egin dezakegun.

Haurren masajeari ere garrantzia emango al diozu hitzaldian?

Bai, haur masajea ez da teknikara mugatzen, haurraren komunikatzeko erabiliko dugun teknika bezala ikusten dut. Hautzarroan ahozko hizkuntza apenas dago, horretarako erabili dezakegu kontaktua, komunikaziorako. Berezi-tasunik aberasgarriena da masajearekin gaudenean erabateko dedikazioa eskaini diezaikegula haurrari. Egun bizi garen erritmoan, hau da gehien estimatzen dutana haur masajetik.

Langostino Moto Kultur Elkartek urteko lehen bira egingo du igandean

ERREDAKZIOA

Datorren igandean, hilaren 31n, Ibarako Langostino Moto Kultur Elkartek urteko lehen moto bira egingo du. Ohikoa den bezala, San Bartolome plazatik abiatuko dira motorzaleak, 09:30ean.

Eguneko ibilbidea honakoa izango da: Ibarra, Tolosa, Anoeta, Irura, Andoain, Lasarte, Usurbil, Orio, Igeldo, Donostia—hemen hamaiketako egingo dute Txopper tabernan—, Astigarraga, Hernani, Urmieta, Andoain, Villabona, Tolosa eta Ibarra. 13:30ak aldera bueltatuko dira Ibarra.

Bira edozein motorentzat egokia dela argitu dute elkartetik; hala, motorzale guztiei ireki die bertan parte hartzeko deialdia.

Hamaiketakorako izen-ematea

Hamaiketakoan zenbat lagun izango diren jakitea beharrezkoa dela aipatu dute; aurretik izena ematea ezinbestekoa izango da, beraz. Izena *langostinomotofesta@gmail.com* helbidean edo hurrengo telefonoetara hots egin egin daiteke: 618-448194 (Aitor) 670-417915 (Moski) edo 636-403170 (Ander).

Bihar odola emateko aukera izango dute Berastegiko herriko eskolan

ERREDAKZIOA

Bihar herriko eskolan odola emateko aukera izango dute herritarrek odol emileen elkartearen eskutik. 18:30etik aurrera izango dira bertan.

Halaber, elkartetik iaz Berastegin izandako odol emate kopurua goraiatu dute izan ere, «oso altua da, mila biztanleko herria izateko». Hain zuzen, 136 lagunek eman zuten odola 2009an.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



laz bezala, aurten ere Aresoko gazteak baserri-zaserri ibiliko dira eskean. ASIER IMAZ

Leitza utzi eta Aresorako bidean aurkitzen dira Inauterietako mozorroak

Gizartea » Eskolan ospatuko duten Jaialdiak emango die hasiera Aresoko 2010eko Inauteriei.

ASIER IMAZ

Guraso Elkarteak eta Lagunarteko gazteek antolatuta dituzte Aresoko 2010eko Inauteriak, Udalaren laguntzarekin. Bihartik igandera herriko txoko guztietan ospatuko dituzte Leitza amaitu berri diren jai berezi hauek.

'Apirileko Feria'

Andaluzia aldean egiten den azoka jendetsua Aresoko Eskolara ekarriko dute bihar. Haurrek, gurasok eta irakasleek Eskolako Jaialdia antolatuta baitute gai hori ardatz hartuta. Ondoren merienda egin

» EGITARAUA

Bihar, hilak 29

- **15:00etan.** Eskolako Jai.
- **16:30etan.** Merienda Pake-Tokin.

Etzi, hilak 30

- **10:00etan.** Lagunarteko antolatu goseria.
- **11:00etan.** Baserrietako eskea.
- **11:30etan.** Haurrentzat ginkana.
- **16:00etan.** Pailazoan karroza.
- **17:00etan.** Txokolatada Trinke-tean.
- **18:30etan.** Oihana Mindegia eta

go dute Pake-Toki elkartearen berrotasunean.

Herriko gazteak etzi jarriko dira martxan. Lehenik gosari eder bat egingo dute eta ondoren baserrietara joango dira eskean. Gauerako herri afaria antolatu dute.

Oihana Elizalde trikitalarien emaldia herriko plazan.

- **21:30etan.** Pake-Toki elkartearen herri afaria.
- **Ondoren.** Trikitaliak.

Igandea, hilak 31

- **10:00etan.** Lagunarteko antolatu goseria.
- **11:00etan.** Eskea herrian barrena.
- **17:00etan.** Eritz Magoa.
- **18:30etan.** Dantzaldia Alaitz eta Gorka herriko trikitalariek.

Mozorrotuta ager daitezela!

Antolatzaileek herritarrei mozorrotzea eskatu diete: «Animatu daitezela denak! Ostiraleko eta larunbateko karrozetara mozorrotuta ager daitezela! Balkoiak eta leihoak ere apaindu ditzagula!».

Aresotik Haitira eta Malira

ERREDAKZIOA

Guraso Elkarteak Eguberrietan etxez-etxe kantari bildutako dirua hiru zatitan banatzea erabaki du.

Alde batetik, Haitira bidaliko dute zati bat; lurrikara jasan berri duten jendeari laguntza emateko asmoz.

Beste zatia berriz, sute baten ondorioz kaltetua izan den Maliko umezurtz-etxe batera bideratuko da.

Hirugarrena, urterto egin ohi den moduan, kantari ibili ziren haurrei meriendatxo emateko erabiliko da. Horretarako haur guztiak Pake-Tokin elkartuko dira ostailaren 5ean, 17:30etan.



Gabonetan Areson bildu zuten dirua Malira eta Haitira bidaliko dute. HITZA

Oinatz Bengoetxeak igandean jokatuko du

ERREDAKZIOA

Binakako Txapelketako azken bi partidak galdu ostean, igandean jokatuko du laugarren partida Oinatz Bengoetxeak. Ruben Beloki lesionaturik aurkitzen denez, Otxandorenarekin jarraituko du leitzarrek.

Aurrean, aurkari bezala, bikote sendoa edukiko dute Eibarren: Juan Martinez de Irujo eta Mikel Beroiz.

Bigarren Mailako Txapelketa

Mikel Olazabal aresoarrak bihar jokatuko du Amorebietan, Arruti lagun duela, Urrutikoetxea-Argoteren aurka.

Egun berean, hilaren 29ean, Bigarren Mailako Txapelketaren partida etxean jokatuko aukera edukiko du Saralegi amezketarrak. Eskuderoren laguntzaz, Aritz Lasa-Merino estu hartzen saiatuko da amezketarra.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipirita baserria - Santxo Zaharra www.rezolasagardotegia.com

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus gehokirik gerta)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.skerriakakelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergoibetik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gortziategi baserria, Martutene pasadokoa, 139

Mina Tel.: 943 555 220 Astigarraga
Txortokietza pasealekua

Gortziategi Tel.: 943 469 674 Astigarraga
Donostia Astigarraga bidea, 5 Km. www.gortziategi.com

Elutzeta Tel.: 943 556 981 Urdeta
Ostaraun auzoa, 34 - Elutzeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Erekotu auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Oñalaga auzoa

Iparragirre Tel.: 943 550 328 Hernani
Oñalaga auzoa, 10 www.iparragirre.com

Urdaira Tel.: 943 372 691 Aginaga-Uurbil
Urdaira baserria

Arratzain Tel.: 943 366 663 Uurbil
Arratzain zahar baserria

Urbitate Tel.: 943 180 119 Auzoa
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zerain
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegi.com isastegi@isastegi.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Isastegieta
Harriz baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Adana
Goragarra baserria (Golburu auzoa) www.zabala.com info@zabala.com

Sarasola Tel.: 943 690 283 Auzoa
Bebalera auzoa

Ola Tel.: 943 623 136 Irujo
Meska auzoa, 102

Lindurrenborda Tel.: 948 637 212 Lesaka
Nabae auzoa, 5

DIEZ Autobusak

Autobusak eta irratien zerbitzuak

Bus eta irratien zerbitzuak

Autobusak, irratien zerbitzuak, autobusak, irratien zerbitzuak

Mundako kalea, 34 / Tel.: 943 28 84 16 / Fax: 943 27 11 27 / 20012 DONOSTIA

Posta elektronikoa: autobusak@diezautobusak.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 034. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdia

■ **Amezketeta.** Gaur 20:30ean udaletxeko pleno aretoan ohiko bilkura egingo dute. Bertan gai hauek jorratuko dituzte: Estatuko Enplegu Zuzendaritza eta Udal Entitateen arteko 2010erako akordioarako proiektua onartzea eta diru-laguntza eskatzea; Orkaiztegi y Otamendi S.L.-k eskaturiko Ugarteko 9-B eraikuntzaren lehen erabilpenaren onarpena; Dendalegi etxea berritzeko herritar batek eskaturiko obra baimena; batzordeen inguruko informazioa; eta alkatetza-ren ebazpenen berri ematea.

Bertsolaritza

■ **Asteasu.** Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatutako Beterriko III. Bertsolari Txapelketaren lehen kanporaketa izango da bihar Aitz-Ondo Elkartearen 20:30ean. Sorgin-Orratzak eta Labezomorroak taldeak izango dira.

Hitzaaldia

■ **Villabona.** Jesusen Bihotza ikastolaren Kultur Astearen baitan bi ekitaldi izango dira bihar. Batetik goizean, 10:00etatik 13:00etara, eskalada saio praktikoa izango da Tolosako Usabal kiroldegian, Aintzane Agirre eta Galder Azkueren gidaritzapean, LH6 eta DBHko ikasleentzat. Arratsaldean berriz, 18:00etan zehazki, *Erori eta berriz hasi* hitzaaldia eskainiko du Josune Bereziartu eskalatzaileak. Herritar guztiei irekita dagoen ekitaldia dela argitu dute antolatzaileak.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
■ **Leitza.** Erbiti O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Txomin Garmendia 'Hitzetik Hortzera'n

Berrobi » Idazle eta bertsolariak bere azken lana, '2008ko nere egunkaria', aurkeztuko du telebista saioan.

ERREDAKZIOA

ETBko *Hitzetik Hortzera* saioan Txomin Garmendia idazle eta bertsolari berrobiarrarekin izandako solasaldia emitituko dute.

Garmendiak *2008ko nere egunkaria* izeneko liburua atara berri du eta horren berri emateko gerturatu zen Villabonako Mintzolako ganbarara.

2008ko egun bakoitzean zerbait idatziz osatu zuen Garmendiak egunkaria, gehienetan politika, kirol edota gizarte sailetako albiste- inguruan, eta eguneko albiste bakoitzari bertsu bat ere erantsi zion. Joxemari Iriondo kazetaria arduratu zen Garmendiaren lana plazaratzeaz.

*Hitzetik Hortzera*ko taldeari bere gaur eguneko martxa azaldu

zien berrobiarrak, baita garai bateko pasadizo gozagarriak ere. Hala nola, Martutenen preso sartu zuteneko, *Injuriar al Ejercito español* egitea leporatuta Burgosen betetzen ari zen soldadutzari jarritako bertsu batzuk tarteko. Era berean, aspaldi ikasitako bertsu eder- rrek ere kantatu zituen gaur emitituko duten saioan.

Txolarren larunbateko bertsu jaialdia

Garmendiaren elkarrizketarekin batera pasa den larunbatean Tolosako Leidorren izandako bertsu jaialdiko irudiak ere eskainiko dituzte. Saioa Txolarre irratia anto- latu zuen, bere 10. urteurrena ospatzeko.

Hitzetik Hortzera gaur bertan emitituko dute ETB3n, 22:00etan. Igandean ETBn 15:00etan ere bota- tuko dute, baina igandetako la- burpena besterik ez da izaten eta beraz ez dute platoko irudirik sar- tuko, Txomin Garmendiarekin izandako solasaldia ere ez dutela- rik emitituko.



Txomin Garmendia Mintzolako ganbaran izan zen. HITZA



Txolarren aldeko bertsu saioa ere emitituko dute gaur ETB3n 22:00etan. HITZA

A Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

| | |
|-----------------------|---------------|
| • Izen-abizenak: | • N A : |
| • Lanbidea: | • Jaioteguna: |
| • Helbidea: | • Herria: |
| • P.K: | • Tel.: |
| • Posta elektronikoa: | |
| • Kontu zenbakia: | |